
FAMILIEN ESKULIBURUA
2026-2027 IKASTURTEA



1. ESKOLA EGUTEGIA 2026-2027	11. ZERBITZUAK: JANGELA - HAURTXOKOA
2. ORDUTEGIAK	12. GURASO ELKARTEA
3. IRAKASLERIA	13. BOTIKEN TRATAERA
4. ORDEZKARITZA ORGANO GORENA (OOG)	14. HIZKUNTZAREN TRATAERA
5. EBALUAZIO DATAK ETA TXOSTENAK	15. IKASLEEN SEGURTASUNAREKIN LOTURIKOAK
6. FAMILIA BILERAK	16. IKASLEEN ONGIZATEA - ESKOLA-JAZARPENA
7. TESTU-LIBURUAK ETA MATERIALAK	17. GAILU DIGITALEN ERABILERA
8. PROIEKTU ETA EGITASMOAK	18. PREBENTZIO-JARDUKETAK ESKOLA ESPARRUAN
9. JAIALDIAK ETA KULTURA-EKINTZAK	19. TXAKURRAK ESKOLA-EREMUAN
10. JARDUERA OSAGARRIAK	20. HARREMANA

1. ESKOLA EGUTEGIA 2026-2027

2026-2027 ikasturteko egutegia / Astigarragako Herri Eskola

IRAILA

A	A	A	O	O	L	I
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

URRIA

A	A	A	O	O	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

AZAROA

A	A	A	O	O	L	I
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

ABENDUA

A	A	A	O	O	L	I
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

URTARRILA

A	A	A	O	O	L	I
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

OTSAILA

A	A	A	O	O	L	I
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28

MARTXOA

A	A	A	O	O	L	I
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

APIRILA

A	A	A	O	O	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

MAIATZA

A	A	A	O	O	L	I
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

EKAINA

A	A	A	O	O	L	I
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

Ikaslerik gabe	murriztua	jaieguna

2. ORDUTEGIAK

ORDUTEGI TRINKOA (goizez)	
HH2* – HH3 – HH4 – HH5 – LH1 – LH5 – LH6	9:00 – 13:00
LH2 – LH3 – LH4	8:55 – 13:00

* HH2 sarrera–ordutegi malgua **9:00–9:10** artean.
* HH2 irailean egokitzaldiko ordutegia beteko dute.

ORDUTEGI OSOA (goizez eta arratsaldez)	
HH2* – HH3 – HH4 – HH5 – LH1 – LH5 – LH6	9:00 – 12:30 / 14:45– 16:30
LH2 – LH3 – LH4	8:55 – 12:30 / 14:45 – 16:25

* HH2 sarrera–ordutegi malgua **9:00–9:10** artean.

JOLASGARAIAK		
MAILA	ORDUTEGI TRINKOA	ORDUTEGI OSOA
HH2	10:15 – 11:00	10:15 – 11:00
HH3 – HH4 – HH5	11:00 – 11:40	11:00 – 11:45
LH1 – LH6	11:00 – 11:40	11:00 – 11:30

3. IRAKASLERIA

ZUZENDARITZA TALDEA	
Zuzendaria	Mikel Goikoetxea
Ikasketa Burua	María Alli
Idazkaria	Errege Belda
Administraria	Mila Balda

	TUTOREAK				
	A	**B**	**C**	**D**	**E**
HH2	Maitane Arregi	Begoña Elizegi	Ane Estarloa	Leire Sagastume	
HH3	Iker Urkiola	Loli Goienetxe	Roxali Fernández	Ramon Lujanbio	
HH4	Emma Salamanca	Virginia Jaka	Susana Arevalo	Maite González	
HH5	Elena Carcedo	Amaia Astigarraga	Nora Erdozain	Enara Glez.Txabarri	
LH1	Amaia Rodríguez	Ainhoa Apaolaza	Axun Odriozola	Idoia Arrieta	
LH2	Judith García	Patricia Artiach	Nerea Galan		
LH3	Ana Herrero	Lohizune Iribar	Irati Etxezurieta	Ainhoa Ferro	
LH4	Itxaso Isasi	Maider Ortigosa	Estitxu Gaztañaga	Maixabel Iribarren	Isabel Cortajarena
LH5	Goizaldi Zamora	Maider Mujika	Inma Val	Olaia Alkorta	
LH6	Iñaki Agirrezabala	Iñigo Arregi	Ainhoa Garay	Asier Arzak	

*Ordezkoaren izendapenaren zain.

ESPEZIALISTAK	
HH LAGUNTZAK	Maite Olaziregi / Mati Genova / Idoia Zabaleta / Ione Begiristain
LH errefortzuak **IKT errefortzuak** **HIPI**	Izaskun Leon / Kontxi Olano / Maite Albero
INGELESA	Izaskun Urbieta / Ainhoa López / Ion del Alamo Monica Casal / Maialen Beracoechea
MUSIKA	David Martin / Iraitz Igarza (2/3)
GORPUTZ HEZKUNTZA	Josu Oiaga (1/2) / Ander Aristi / Xabier Mitxelena
AHOLKULARIAK	Itsaso Domínguez / Nahikari Tolosa / Ane Zubeldia (1/2)
PT	Arantxa Mendikute / Oier Basurko / Yasmina García de Albeniz / Ane Zubeldia (1/3)
ALE (logopeda)	Usue Molina / Maialen Sarasa (1/2)
HEZITZAILEAK	Ainhoa Del Río / Olatz Barandiaran / Oihane Merino Ainhoa San Sebastian / Noelia Bermejo
BERRIKUNTZA ARDURADUNAK	Maria Herrador Lorena Mier
JANGELA	Aintzane Irastorza / Josu Oiaga (1/2)

*Ordezkoaren izendapenaren zain.

4. ORDEZKARITZA ORGANO GORENA (OOG)

Eskolaren ordezkaritza organo nagusia da eta eskolako erabaki garrantzitsuenak hartzeko eskumena du. Eskola komunitateko estamentu guztiek parte hartzen dute bertan: familiak, irakasleak, Zuzendaritza Taldea, langile ez-irakasleak eta Udala.

2026-2027 ikasturteko osaketa honakoa da:

FAMILIAK		IRAKASLEAK
Aines Ceberio Itziar Irijalba Agurtzane Irizar Naroa Morales Jaione Mendia Aitor Agirre Ane Loperena	Ainhoa Aranzabal Eluska Arrieta Oihana Dorronsoro Estibalitz Fuentes Eneritz Garmendia Jaione Larrañaga Amaia Lizeaga Naiara Subiza *	2026-2027an jarraitzen dute: - Judith García - Ainhoa López - Ramon Lujanbio - Maite Albero - Isabel Cortajarena 2026-2028 eperako: - Ione Begiristain - Mati Genova - Amaia Rodriguez - Izaskun Urbieta - Loli Goienetxe
Langile ez-dozenteen ordezkaria		X
Udaleko ordezkaria		Ainara Vázquez
Zuzendaritza taldea		Mikel Goikoetxea Maria Alli Errege Belda

* 2026-2027 ikasturtearen lehenengo hiruhilekoan hauteskundeak ospatuko dira OOG berria osatzeko.

5. EBALUAZIO DATAK ETA TXOSTENAK

Ebaluazio datak:

- 1. ebaluazioa: irailak 7 – abenduak 4
- 2. ebaluazioa: abenduak 9 – martxoak 19
- 3. ebaluazioa: apirilak 5– ekainak 18

Ebaluazio-txostenak:

- Ebaluazio-txostenak *Inika* aplikazioaren bidez publikatzen dira.
- HH etapan txosten bakarra publikatuko da ikasturte bukaeran.
- LH etapan:
  - LH 1. mailan bi txosten, otsailean eta ekainean.
  - LH2-LH6 mailetan ebaluazio bakoitzeko txosten bat: abenduan, martxoan eta ekainean.
- Ebaluazio-txostenen azalpen-dokumentuak honakoak:
  - HH ebaluazio-txostena
  - LH ebaluazio-txostena

6. FAMILIA BILERAK

<table>
<tr><th></th><th>HH2</th><th>HH3-HH4-HH5</th><th>LH1-LH2</th><th>LH3-LH4</th><th>LH5-LH6</th></tr>
<tr><td>IRAILA</td><td>Egokitzapena bilera</td><td colspan="4"></td></tr>
<tr><td>IRAILA-URRIA</td><td></td><td colspan="4">Gela-bilerak</td></tr>
<tr><td>URRIA</td><td>Bakarkako bilerak</td><td colspan="4"></td></tr>
<tr><td>AZAROA-ABENDUA</td><td></td><td colspan="4">Bakarkako bilerak</td></tr>
<tr><td>ABENDUA-MARTXOA</td><td></td><td>HH4 monografikoa: irakurketa-idazketa</td><td colspan="3"></td></tr>
<tr><td>MAIATZA-EKAINA</td><td colspan="5">Bakarkako bilerak</td></tr>
</table>

Oharra: Familiek tutoreekin bilera eskatu ahal izango dute ikasturtean zehar beharrezkoa ikusten badute.

7. TESTU-LIBURUAK ETA MATERIALAK

Hezkuntza-saileko *Liburu solidarioa* programaren bidez eta Guraso Elkarteari egindako aportazioaren bidez, beharrezko testuliburuak eskolak berak erosten ditu.

HH		● Geletarako mantalik ez da behar.
	HH2	● Familiako argazki-albuma prestatzen joatea komeni da. ● Ura edateko plastikozko edalontzi bat. ● Jangelarako babero maukaduna, poltsikorik gabekoa.
	HH3	● Ura edateko plastikozko edalontzi bat. ● Jangelarako baberoa, lepoan goma duena, maukarik gabekoa.
	HH4	● Ura edateko kantinplora txiki bat. ● Ingelesa arlorako plastikozko karpeta (folio tamainakoa, sobre modukoa).
	HH5	● Ura edateko kantinplora txiki bat. ● Ingelesa arlorako iazko karpeta.
LH1		● Karpeta gomadun sinple bat. ● Ingelesa arlorako: Iazko HHko ingeleseko karpeta (A4 orriak gordetzeko) eta A5 (orri erdikoa) tamainako karpeta bat.
LH2		● Lanerako estutxe osatua: arkatza, borragoma, txorroskiloa, koloreetako margoak (12, egurrezkoak), errotuladoreak, erregela txikia (15 cm), kola eta guraizeak. ● Karpeta gomadun sinple bat. ● Ingelesa arlorako: Iazko ingeleseko karpeta (A4 orriak gordetzeko).
LH3 **LH4**		● Lanerako estutxe osatua: 2 boligrafo, arkatza arrunta, borragoma, txorroskiloa, margoak, errotuladoreak, erregela (30 cm), kola eta guraizeak. ● Karpeta gomadun sinple bat etxeko lan eta oharretarako. ● Koaderno marraduna (marra bakarrekoa), espiralduna eta A4 tamainakoa (LH3n eskatu eta LH4en berdinarekin jarraitzeko). ● Artxibadorea 4 aniletakoa eta plastikozko 10 zorro (LH3n eskatu eta LH4en berdinarekin jarraitzeko). ● Musika arlorako: plastikozko zorrodun karpeta (LH3n eskatu eta LH4en berdinarekin jarraitzeko). ● Ingelesa arlorako: A5 tamainako karpeta bat.
LH5 **LH6**		● Lanerako estutxe osatua: 2 boligrafo, arkatza, borragoma, txorroskiloa, margoak, errotuladoreak, erregela (30 cm), garraiagailua, eskuaira, 20 cm-ko kartaboia, konpasa, kola eta guraizeak. ● Marrazketa koadernoa (LH5en eskatu eta LH6en berdinarekin jarraitzeko). ● Ingelesa arlorako: karpeta gomadun sinplea (LH5en eskatu eta LH6en berdinarekin jarraitzeko).

Oharrak:

- Estutxea lan-tresna da: materiala neurrian ekarri eta distrakzio-elementuak ekidin.
- Gainerako material guztia irailean tutore bakoitzak eskatuko du.

8. PROIEKTU ETA EGITASMOAK

ZIRKULAZIO LIBREA	HH, LH1, LH2
IKASLAGUNA	HH–LH
PSIKOMOTRIZITATE BEHAKETAK	HH4
INNOVAMAT (matematika)	LH1–LH6
JOLAS GIDATUAK (*Hezten*)	HH4, HH5, LH1
BIKOTEKA IRAKURTZEN	LH2, LH3, LH4
ANTZERKIA	LH4
BERTSOLARITZA	LH5–LH6
BIDELAGUNA	LH5–LH6
INDARTUZ	LH3

9. JAIALDIAK ETA KULTURA-EKINTZAK

EKINTZA	PARTAIDEAK	ANTOLAKETA
Ikasturte hasierako festa	Ikasle eta irakasleak	Irakasleak
Euskararen nazioarteko eguna	Ikasle eta irakasleak	Irakasleak
San Tomas feria	Eskola osoa	Ikasle, irakasle, HH4–HH5 familiak
Olentzero festa	HH, LH1, LH2	Irakasleak
Inauteriak	Ikasle eta irakasleak	Irakasleak
Haur liburuaren nazioarteko eguna	Ikasle eta irakasleak	Irakasleak
Eskolaren eguna	Eskola osoa	LH3–LH4 familiak
Ikasturte amaierako festa	HH–LH2 / LH3–LH6	Irakasleak

10. JARDUERA OSAGARRIAK

IRTEERAK

IKASTALDEA	LEKUA	DATA
HH5	Hondarribia	3. hiruhilekoan
LH1	Ollo	Urriak 22, 23
LH2	Arotzenea (Etxarri)	Maiatzak 6, 7
LH3	Lurraska (Ajangiz)	Urriak 28, 29, 30
LH4	Baratze	Maiatzak 5, 6, 7
LH5	Irisarri (Igantzi)	Urriak 14, 15, 16
LH6	Bertiz (Narbarte)	Maiatzak 26, 27, 28

Oharra: Horietaz gain, egunpasa irteerak egingo dira ikasturtean zehar.

IGERIKETA KANPAINA

LH1. eta LH2. mailetako ikasleek igeriketa kanpainan parte hartuko dute.

Ikastaroak **3 asteko** iraupena izango du, arratsaldeko ordutegian.

LH1	Apirilak 23 – Maiatzak 14	Hernaniko kiroldegian
LH2	Urtarrilak 18 – Otsailak 5 *	Hernaniko kiroldegian

* Azken eguneko saioa, otsailaren 5ekoa, goizez izango da ikasle guztiek inauterietan parte hartzeko aukera izan dezaten.

11. ZERBITZUAK: JANGELA – HAURTXOKOA

JANGELA ZERBITZUA

ENPRESA ARDURADUNAK: AUSOLAN
ESKOLAKO ARDURADUNA: Aintzane Irastorza / Josu Oiaga
(jangela@astieskola.eus / 943 55 12 62 – 2. luzapena)

JANGELA ZERBITZUAREN KUOTAK

- OHIKOEN KUOTA: 4,60€ eguneko – **80,50€**ko kuota finkoa 10 hilabetetan
- NOIZBEHINKAKOEN KUOTA: **5,20€** eguneko
- GARRAIATUEN KUOTA: **3,30€** eguneko

AZPIEGITURAK

- JANGELA TXIKIA: beheko solairuan kokatua, HHko ikasleentzat,
- JANGELA HANDIA: lehen solairuan kokatua, LHko ikasleentzat.

ANTOLAKETA

- Jangela zerbitzua **irailaren 7**an hasi eta **ekainaren 18**an amaituko da.
- Txandak ikasturte hasierako txostenean zehaztuko dira.
- Goiz eta arratsaldeko ordutegian, HH2 eta HH3ko ikasleek siesta egingo dute.

MENUAK
Hilabeteko menua eskolako web orrian ikusgai jarriko da hilero.

ARAUDIA
Jangela-zerbitzuko barne-araudia dokumentu honetan jasotzen da.

Informazio gehiago eskolako web orrian.

HAURTXOKOA (goizeko zaintza zerbitzua)

ARDURADUNA: Guraso Elkartea (gurasoelkartea@astieskola.eus / 695 442 832)
ORDUTEGIA: 7:30-9:00

Informazio gehiago hemen.

12. GURASO ELKARTEA

Guraso Elkartea, eskolako ikasleen familiek osatutako elkartea da. Ikasgela bakoitzetik guraso batek hartzen du gelaburu ardura eta honek elkartean parte aktiboa izango du. Gainera, gela eta elkartearen zubilanak egingo ditu. Gelaburua gutxienez bi urtetarako izendatuko da. Modu boluntarioan gelabururik aurkezten ez den geletan, zozketa egingo da.

Batzordeetan antolaturik gelaburu eta guraso boluntarioek alor ezberdinetan egiten dute lan. Horrez gain koordinatzaileak ere badaude.

Helburu nagusia hezkuntza komunitate osoarekin batera ikasleen hezkuntza integrala bermatzea da, batzorde ezberdinen bitartez.

- Batzordeak: eskolaz kanpoko batzordea, ekonomia batzordea, haur txokoa, san tomas batzordea, eskolako festa batzordea, jangela batzordea, euskara batzordea, iraunkorra, OOG, eskolako espazioak, harrera batzordea, komunikazio batzordea, giza baliabideen batzordea besteak beste.
- Zuzendaritza batzordeko bilerak: elkarteak hileko lehen astearterako bilera deialdia egiten du. Hilero bidaltzen dira deialdiaren xehetasunak.
- Urtean ohiko batzar orokor bat egiten da.

Edozein argibidetarako edo Guraso Elkartean parte hartzeko, GEko koordinatzaileekin harremanetan jar zaitezkete:

tlf: 695 442 832 / Posta helbidea: gurasoelkartea@astieskola.eus

Parte hartzera animatu zaitez!!

BEHAR GAITUZU, BEHAR ZAITUGU!!

GURASO ELKARTEKO KUOTAK

Irailetik Ekainera Guraso Elkarteak 15€ko 10 kuota pasako dizkizue kontu korrontetik. Kuota hau ezinbestekoa da testuliburuak, eguneko irteerak, aterpetxeak, bilera zaintzak eta abar luze bat aurrera eraman ahal izateko.

Guraso Elkarteko kuotak ordaintzen ez dituena edota bere gelaburu lanak betetzen ez dituena elkartetik kanpo geratuko da eta honako hauen kostu osoa ordaindu beharko du: irteerak, ingeleserako materiala, testu liburuak, igeriketa. Gainera, bakoitzaren kostu osoaren %5 gehiago ordaindu beharko dute administrazio kudeaketagatik.

Salbuespenak: kuota beren gain hartu ezin dutenek Guraso Elkarteko koordintzailearekin kontaktuan jarri beharko dute kasu bakoitza aztertzeko.

ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK

- Ekintza guztiak astean saio batekoak izango dira, eskola kirola izan ezik.
- Urria hasieran hasi eta maiatza amaiera arte izango dira (8 kuota).
- Ekintzetan baja eman nahi duenak dagokion hiruhileko kuota guztiak ordaindu beharko ditu baja gauzatu aurretik.
- Kuota 30€/hilabetean izango da kasu guztietan, eskola kirola izan ezik:
    - Jolas hezi (LH1-2): saio bat edo bi astean, 30€ ikasturtea.
    - Multikirola (LH3-6): saio bat edo bi astean, 60€ ikasturtea.
    - Bekadunak izan diren familiek, 26-27 ikasturtean, eskola kirola doakoa izango dute.
- Guraso elkarteko bazkide diren familiek %50eko deskontua izango dute ekintzen kuotan.

13. BOTIKEN TRATAERA

Ikasleen osasun-laguntza ez da hezkuntza-sistema ezta bertan lanean dihardutenen lana, bizia arriskua dagoenetan ez bada. Horren arabera jokabide orokorra ikasleei botikarik ez ematea izango da, eta ondorengoa hartukoa da kontuan:

- Ikasleei Paracetamol, Ibuprofeno edo antzekorik ez zaie emango. Ikasle batek botika horien beharra duenean sukarra duelako izaten da eta horrelakoetan etxera deituko da familia bila etorri dadin.

- Antibiotikoak/bestelako botikak (epe motz baterako tratamenduak) behar diren kasuetan, familiak medikuaren txostena ekarri ezkero botika eman ahal izango da, beti ere irakasleren bat prest badago. Haurraren aitak/amak/tutoreak idatzizko baimena emango dio bere burua laguntzeko eskaintzen duenari, eta edozein erantzukizunetik libre utziko du (Hezkuntzako baimen eredua).

- Gaixotasun kroniko/larrien eta alergien kasuan, botika emateko medikuaren txostena ekartzea eskatuko zaio familiari, eta botika emango zaio, beti ere irakasleren bat prest badago. Haurraren aitak/amak/tutoreak idatzizko baimena emango dio bere burua laguntzeko eskaintzen duenari, eta edozein erantzukizunetik libre utziko du (Hezkuntzako baimen eredua).

14. HIZKUNTZAREN TRATAERA

OHARRAK / EBALUAZIO TXOSTENAK

Eskolako oharrak eta ebaluazio txostenak familia bakoitzak egindako hizkuntza aukeraren arabera zabalduko dira, euskara hutsean edo elebietan.

BILERAK

- **Banakako bilerak**: Bilera hauek familia bakoitzaren hizkuntza ezagutzaren arabera egingo dira, euskaraz ala gaztelaniaz.

- **Talde bilerak**: Herriko erakunde publikoekin adostutako hizkuntzaren trataerarako irizpideak jarraituz, talde-bilerak euskaraz egingo dira. Bilera horietan, bertaratzen den guztien ulermena bermatuko da, euskaraz ahoz esaten dena gaztelania hutsezko euskarri batean eskainiz, bileran bertan sortzen diren zalantzak argituz, eta egiten diren galderei dagokien hizkuntzan erantzunez.

15. IKASLEEN SEGURTASUNAREKIN LOTURIKOAK

IKASLEEN BERTARATZEA

Arrazoia edozein izanik ere ikasle bat eskolara etorriko ez denean, familiaren ardura izango da **tutoreari edo eskolari jakinarazpena** helaraztea (telefonoz, e-mailez, idatzizko ohar baten bidez...).

IRTEERETARAKO BAIMENAK

Matrikulazio garaian ikasle bakoitzaren irteeretarako baimenak sinatzen dira. Baimen horiek eskola-ibilbide osorako balioa izango dute kontrakorik adierazi ezean.

IKASLEAK BANATZEKO ETA ETXERA BAKARRIK JOATEKO BAIMENAK

- HH–LH2: Haurra bere gurasoak/tutore legalak ez diren pertsonek jaso behar badute, idatziz (emailez, ohar baten bidez...) adierazi beharko zaio tutoreari pertsona horiek baimenduz.
- LH3–LH6: Haurrak etxera bakarrik joan ahal izateko baimen idatzia aurkeztu beharko da. Baimen ereduak eskolako idazkaritzan eskuragarri egongo dira.

ESKOLAZ KANPOKOETARA JOATEKO BAIMENAK

Haurrak eguerdian eskolaz kanpoko jardueretara joan ahal izateko baimen idatzia aurkeztu beharko da. Baimen ereduak eskolako idazkaritzan eskuragarri egongo dira.

IRUDIEN ETA DATUEN TRATAERA

Matrikulazio garaian ikasle bakoitzaren irudien eta datuen erabilerarako baimenak sinatzen dira. Baimen horiek eskola-ibilbide osorako balioa izango dute kontrakorik adierazi ezean.

Irudien trataerari dagokionez eskolako jardunbideak honakoak dira:

– **Ikasturtean zehar egin ohi diren ekintzetarako** (irteerak, festak, gelako jardun bereziak...) irudiak partekatuko dira. Eskolako arduradun batek aterako ditu irudiak (argazkiak eta bideoak) eta trataera egokia emanda argitaratuko ditu, eskolak adostutako jarraibideetan oinarrituta.

– **Familiak gonbidatuta eskolan egiten diren ekintzetan**, eskolak izendaturiko norbait izango da irudiak/bideoak ateratzeaz eta horiei trataera egokia emateaz arduratuko dena. Familiek ateratzen dituzten grabazioak edo argazkiak ezin dira zabaldu, eta **norberaren ardurapean geratzen da horiekin egiten den erabilera**.

– **Eskola eremutik kanpo publikoki egiten diren ekintzetan** eskolak ezin du argazkiak ateratzea mugatu; baina jakin, adin txikikoen irudiak eta bideoak zabaltzeak datuen babeserako legedia urratzen duela eta norbera izango dela ekintzaren arduraduna.

– **Eskola ez den beste erakunde baten eskutik**, eskolako ikasleen irudiak nahiz bideoak erabiltzeko eskaera iritsiz gero, **erabilera pedagogikoa** egiteko soilik emango zaio baimena. Kasu horietan baimen berezi bat sinatu beharko da.

– **Argitaratzeko moduari** dagokionez, argazkiak eta bideoak Gmail, Drive, edo Telegram bitartez jarriko dira familientzat eskuragarri (modu pribatuan beti ere).

16. IKASLEEN ONGIZATEA – ESKOLA–JAZARPENA

Ikasleen ongizateari erantzun egokia emate aldera, **BAT taldeak** lanean dihardu eskolan bizikidetza positibo bat eraikitzen lagunduz.

BAT taldeko partaideak zuzendaria, ikasketa–burua, aholkularia eta ongizate eta babeserako koordinatzailea dira.

BAT taldearen funtzio nagusienak bi dira: alde batetik, ikastetxean bizikidetza positiboaren esparruan garatu beharreko ekintzak sustatzea, eta bestetik, eskola–jazarpen kasuak ebazteko prozesua koordinatzea.

Eskola–jazarpen kasuei dagokienez, ikasleren bat balizko jazarpen–egoera bat bizitzen ari bada edota ikaskideren batengan eskola–jazarpeneko egoera bat behatu badu, egoeraren berri jakinarazi edota laguntza eskatzea garrantzitsua da, kasua aztertu eta ikaslea babesteko beharrezko neurriak hartzeko.

Ikasleei bide desberdinak eskaintzen zaizkie egoera horien berri eman dezaten:

- Familiari esan eta familiak eskolari jakinarazi.
- Ikastetxeko konfiantzazko heldu batekin hitz egin (tutorea, espezialista...).
- BAT taldeko partaideei jakinarazi.
- Eskolako BAT postontzietan mezu bat idatzi.

Ikasleen ongizatearen zaintzan hezkuntza–komunitateko kideen arteko lankidetza ezinbestekoa da. Horregatik, ikasleen ongizatea zalantzan egon litekeenaren edozein zantzuren aurrean eskolarekin harremanetan jarri zaitezte.

Horretarako kanalak ondorengoak lirateke:

- Irakaslegoarekin zuzenean harremanetan jarri.
- BAT taldera mezu bat bidali: bat@astieskola.eus
- BAT galdetegia bete.

BAT galdetegia

17. GAILU DIGITALEN ERABILERA

Eskolako ikasle eta langile guztien babesa bermatze aldera, gailu digitalen erabilera mugatzeko ondorengo protokoloa jarraituko da:

Ikasleek **etxetik ekartzen dituzten gailuei** dagokienez:

- Ikasleek ezingo dute eskola-jardunean gailu digitalik erabili; ez jolaserako gaituak daudenak, ez irudiak eta audioak egiteko balio dutenak, ez eta deiak egiteko erabili daitezkeenak (mugikorra, ordulari inteligentea...).
- Familiek, haien seme-alabek gailu hauetako bat eskolara ekartzea beharko balute, gailu digitala motxilan jasota eta itzalita eduki beharko dute (ordu lektiboetan eta jangela orduetan).
- Erabilera okerra eginez gero, gailua idazkaritzan jasoko da eta gurasoek etorri beharko dute bila.
- Era berean, gailuak galdu edo hausten badira, eskola ez da kargu egingo.

Eskolako gailuei dagokionez, horien erabilera ondorengo protokoloaren arabera araututa dago:

Gailuen erabilera Astigarragako Herri Eskolan

18. PREBENTZIO-JARDUKETAK ESKOLA ESPARRUAN

Babesgabetasun-zantzuak jakinarazteko betebeharra

«Ikastetxe honek honako hau jakinarazten die gurasoei: Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren arabera (indarkeriaren aurrean haur eta nerabeei babes integrala emateko legea), ikastetxean uste bada ikasleren bat babesgabetasun egoeran dagoela susmatzeko zantzuak daudela; hau da, uste bada ikasle horren zaintzaileek beren eginkizunak betetzen ez dituztela, ikastetxeak egoera hori jakinarazi beharko die gizarte zerbitzuei, legeak hala aginduta. Jakinarazpena eginez gero, horren berri emango zaio ikaslearen familiari».

19. TXAKURRAK ESKOLA-EREMUAN



Haurren kustodia eta segurtasuna eskola-ordutegian zentruaren ardura diren heinean, ardura horiek bermez betetze aldera, ezin izango da txakurrik sartu eskola-eremuan ikasleen jasoketa eta entrega momentuetan. Era berean, eskola-eremuan txakurrak lotuta bakarrik ez uzteko eskatzen dizuegu.

20. HARREMANA

TELEFONOA: 943 55 12 62

EMAILAK:

Orokorra	013521aa@hezkuntza.net
Zuzendaria	zuzendaria@astieskola.eus
Ikasketaburua	ikasketaburua@astieskola.eus
Idazkaria	idazkaria@astieskola.eus
Administraria	administraritza@astieskola.eus

HELBIDEA: Santio Zeharra 4, 20115 Astigarraga

WEB ORRIA: www.astieskola.eus

TELEGRAM: https://t.me/+H1saxG_c2V9hYTU0

IKEE (Iradokizunak, Kexak, Erreklamazioak eta Esker onak):
Eskolako web orrian, izen bereko atalean sartuta, iradokizunak, kexak, erreklamazioak eta esker onak helarazteko aukera duzue. Horretarako, inprimakia bete eta ahalik eta azkarren erantzungo dizuegu.